

## LANGILEEN ALDE, lan eta bizitza duinak, hemen erabaki



Enpresa handiek, konpainia energetikoez edota finantza erakundeek irabazi itzelak dituzten bitartean, euskal langileen lan eta bizi baldintzek okerrera egin dute eta ez gaude prest ondasunaren banaketa bidegabea onartzeko. Ez gaude prest emakumeok\* bakarrik arduratzeko zaintza lanetaz, ez dugu onartzen enplegu prekarioak bereziki langile migratu eta arrazializatuen ardura izatea. Lantoki nahiz sektore mailan borrokarako gaitasuna erakutsi dugu, horretan jarraitzen dugu. Tokian tokiko borroka eta langile guztien aldeko neurri orokorrak, biak dira beharrezkoak pertsona oroaren oinarritzko beharrei erantzuteko.

## LANGILEEN ALDEko NEURRIAK

### 1.600 euroko gutxieneko soldata

Egun, enplegu bat izatea ez da pobrezia arriskutik urruntzeko bermea. Prekarietatea geroz eta hedatuago dago eta handitzen ari da langileen arteko aldea, enpleguari dagokionean, lan baldintza duinak dituzten eta ez dituzten artean. Soldatarik baxueneko eremuetan emakumeen\*, langile migratu edota arrazializatuen zein gazteen presentzia handia da. Soldatak hobetu egin behar dira aberastasunaren birbanaketa egokiago baterako. Bertako gutxieneko soldata ezar daiteke negoziazio kolektibo intersektorialaren bidez.

### 30 orduko lanaldia

Jardunaldi murrizketa ezinbesteko erroka da: digitalizazioak ekarriko duen enplegu suntsiketari erantzuteko, krisi ekosozialak eskatzen duen trantsizioari ekiteko, eta zaintza krisiari aterabidea emateko. Azken horri dagokionean, zaintza lanak aitortu, banatu eta kolektibizatu egin behar dira, zaintza guztion ardura delako. Enpleguari eskainitako denbora murriztu behar da, 30 orduko lanaldira jaitsti, eta zaintzarako lizentzia eta baimenak sustatu.

## Zerbitzu publikoak indartu

Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari dei egiten diegu zerbitzu publikoak indartu ditzaten: enplegu publikoa sortu eta dagoena egonkortu, baliabideak handitu, ratioak hobetu eta privatizatutako zerbitzuak lehengoratu. Lehentasunez, eremu hauetan:

- **Zaintza**

Zaintza lanen banaketa justua egin behar da. Sistema publikotik esku pribatuetan jarri diren zerbitzuak berreskuratu behar dira eta publikazio planak garatu. Gobernuari exijitzen diegu zaintza sistema publikoa, doakoa, unibertuala eta kalitatezkoa sustatu dezatela, horretarako langileen lan baldintzak eta ratioak hobetuz.

- **Hezkuntza**

Euskal Eskola Publiko Komunitarioa edota Euskal Herriko hezkuntza-sistema burujabea - sare publiko bakar eta deszentralizatu - eraikitzeko bidean eskumen gehiago behar dugu, euskararen normalizazioaren aldeko lege eta araudi berriak, eta eskola publiko sistemaren ardatz bilakatzea.

- **Osasuna**

Osasun Sistema Publiko indartzea eskatzen dugu: privatizazio eta kontzertazioarekin amaitu eta privatizatutako zerbitzuak publikatzea; langile gehiago kontratatzea; premiaz lehen arretaren egoera hobetzea; buru-osasun arazoaren prebentzio eta arretarako bitarteko gehiago; osasun sistema euskalduntzeko plana garatzea.

- **Etxebizitza**

Prezioak jaisteko neurri zehatzak sustatu eta alokairu publiko eta soziala areagotu behar da. Merkatuaren logikatik askatuko den etxebizitza politika aldarrikatzen dugu, etxebizitza duinerako sarbidea bermatzea langileentzat.

Lan eta bizi baldintzak hobetzeko neurriak hemen erabaki behar ditugu. Lehentasunezko neurri horiek guztiak bideragarriak dira eta hemen erabaki beharreko gaiak dira, ditugun eskumenetatik abiatu eta erabakimen gehiagoren premiari helduz. Lantokietan, kalean zein instituzioetan, langileen alde indar egiteko unea da.